On egin!

Sukaldaritza eta jan-edana garrantzitsuak dira gurean:
maite dugun jendearekin mahai bueltan elkartu ohi gara,
bazkaldu bitartean afaltzeko zer jango dugun eztabaidatzen.
Oraintxe dena da pintxo-jate eta “Basque Culinary”.

Gure etxean, jatekorari dagokionez, zer-nolako ohiturak ditugu?

Zertan trebatuko gara…
Azken puntua eta oinak emanda, kopletan eta bertsotan jardungo dugu:
neurri txikian eta handian.

… eta zer ikasiko dugu?
Bertsoa atzekoz aurrera sortzeko teknika.

Plazara!
Elikaduraz hamaika kopla eta bertso kantatzeko mamia izango dugunez…
egingo al dugu saiotxo bat jantokian? Gurasoei jantokiko menuak bidaltzearekin
bat, gure bertso sorta ere zabaltzea proposatu dezakegu…

Jantokiko azalorea

Etxahun Lekue Etxebarria

Eta zer dio jantokiko azaloreak bere aurrean agertzen dugun jarrerari buruz?

Doinua: Durangotik gorako
Zortziko txikia

1 Aupa ikasle lagun,
naiz **azalorea**
barazki osasungarri
eta **dotorea.**
Nire mina eduki dut
barruan **gordea,**
gaur zuri kontatzeko
prest nago **ordea.**

2 Baserritarrak mimoz
hazia **soroan.**
Gero erremolkean
eskolara **eroan.**
Patatekin nahasia
lapiko **beroan,**
nire drama hasten da
ikasleen **ondoan.**

3 Platerean jarrita
sarri entzun dut **nik**
"Buagh! Hau nazka..." oihuka
dioen **lagunik.**
Hori dionarentzat
badut **erantzunik:**
Probatu gabe ez esan
gustuko ez **nauzunik!**

4 Jantokira heltzean
hamaika **mespretxu,**
zeuk ere zenbat irain,
txantxa eta **kexu**
Begietatik jaten
ohituta **zaude zu,**
paketean banengo
jango **nindukezu.**

5 Badira ni dastatu
nauten lagun **batzuk**
eta denek diote
"Ba nik gustuko **dut!"**
Akaso hori egin
behar zenuke **zuk.**
Bihar bazkalorduan
itxarongo **dizut.**

Animalion elikadura
Nor naiz?

Saioa Alkaiza Guallar

Plaktona antxoak, antxoa hegaluzeak, hegaluzea gizakiak, gizakia krokodiloak... Ea asmatzen dugun, elikatzeko moduagatik, zein animalia ageri den bertso bakoitzean!

Doinua: Zeru altuan zegoen Jaunak
Zortziko handia

Altua, beltza, gihartsua naiz
Afrika **ingurunean**
ibiltzen dena frutak, haziak…
biltzen **askatasunean.**
Zuhaitz-azalak eta sustraiak
gutizi nire **xumean.**
Nekatu gabe irents ditzaket
20 kilo **egunean!**

Hori-gorrixka, lumadi erdia,
berde-argitsu, **kopeta.**
Alpiste zale hitzontzia naiz
agindu ohi dut, **tarteka:**
"Plater txiki bat ekar ezazu
ahal dela pipaz **beteta**
ahots eder hau jaki onekin
zaindu beharko dut **eta".**

Ilaje grisez, zuhaitz gaineko
adarretan **akrobata.**
Urik sekula ez dut edaten
eukaliptotik **tiraka…**
Eta ahaztu zait lehen esatea
gaineratzen dut ***post data:***
gure kumeek handi egiteko
jaten dute gure **kaka!**

Zuria edo beltza nauzue
maite dut mendi-**magala**
talde handiak dira niretzat
ingurune **naturala!**
Belarjalea, ez dut izaten
liseriketa **makala:**
nire barnean lau urdail daude
behien barnean **bezala!**

Gari, artoa zein garagarra
irensteko bi **minutu!**
Zizareren bat jaten dut, noski
nahiz horrekin ez **itsutu.**
Eta behin tripa bete ostean
ez gara geratzen **mutu:**
guk kakaraka egiten dugu
eta oilarrek **kukurruku!**

20 bat egun bizi naiteke.
Kaka non, orduan **gu han.**
Usteldutako fruta jaten dut
biziraute **helburuan**
zaborra ere elikagaia
da gure zikin **munduan**
agian orain hegaka nabil
zure buru **inguruan!**

Batzuk: smoothie eta McFlurry
horrek ze plastiko **kutsu!**
Beste batzuek: lekale, arraultz,
edo barazkiak **usu.**
Plater ertzean jartzen duzunak
definituko **zaitu zu.**
Bal al dakizu zein ote naizen?
Ongi ezagutzen **nauzu!**

Goazen sukaldera

Amantala jantzi eta, puntu erdika, koplak osatuko ditugu.
Erronka izango da mezu bera ematea neurri txikian eta handian.
Esaldiak luzatzeko eta mozteko estrategiak erabili beharko ditugu… Gogoratzen?
Ikus 78. orrialdea.

Kopla txikia

Doinua: Hona bildots eztia

. . . . . .

edozein **dieta**

. . . . . .

nire **errezeta.**

. . . . . .

prest dut **zartagina**

. . . . . .

etxean **egina.**

. . . . . .

egin **bizkotxoa**

. . . . . .

jateko **goxoa.**

Kopla handia

Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II

. . . . . .

ona edozein **dieta**

. . . . . .

gaurko nire **errezeta.**

. . . . . .

prestatu dut **zartagina**

. . . . . .

beti etxean **egina.**

. . . . . .

egin dugu **bizkotxoa**

. . . . . .

jateko oso **goxoa.**

Kopla txikia

Doinua: Hona bildots eztia

. . . . . .

beteta **platera**

. . . . . .

aho **barrenera.**

. . . . . .

labana **hartuta**

. . . . . .

mingainaren **punta.**

. . . . . .

menuak **aukeran**

. . . . . .

tragoren bat **edan.**

Kopla handia

Doinua: Kontu barri bat suzedidu da II

. . . . . .

bete dezagun **platera**

. . . . . .

doa aho **barrenera.**

. . . . . .

moztu labana **hartuta**

. . . . . .

erre mingainaren **punta.**

. . . . . .

menuak daude **aukeran**

. . . . . .

lasai tragoren bat **edan.**

Orain arte puntuz puntu joan gara koplak eta bertsoak sortzen. Oraingoan, **lehenik azken puntua pentsatzen** ikasiko dugu, eta gero, azken mezu horretarantz emango ditugu gure pausoak.
Koplak eta bertsoak sortzeko **prozesu honi atzekoz aurrerako teknika** esaten zaio.

Zergatik pentsatu lehenik azken puntua

Ziurtatzeko **amaiera biribila** izango duela koplak/bertsoak. Eta hasieratik jakiteko gure **mezua norantz** bideratu nahi dugun, zein helmugatara. Gainerako esaldiak **antolatzen** ere lagunduko digu, **koherentzia** emanez diskutso osoari.

1 **Azken puntua** pentsatuko dugu, nora heldu nahi dugun. **Errekaren bestaldera** iritsi behar dugu!

2 **Oinak** edo errimatzen duten hitzak **batuko** ditugu.
Errekan harriak jartzea bezala, pausoa bertara emateko.

3 Oinak nahi bezala **ordenatuko ditugu,** mezua argiago azaltzeko.

4 **Oin bakoitzarekin puntu bat** osatuko dugu.
Erreka zeharkatuko dugu, oinez oin, harriz harri, **hasieratik amaierara.**

1

ibaiak eramango gaitu **helmugara**



bagara



puntuz puntu doinuan murgiltzen **bagara**

oinetara



arreta jar dezagun beti **oinetara**

zirrara



Kantuan hasi gara nolako **zirrara**

Karta jokoa hartu eta, “On egin!” sailaren barruan, “Kopla zopa” multzoa hartuko dugu. **Azken puntua eta oina** emango zaigu, **atzekoz aurrera koplak** osa ditzagun. Kopla batzuk neurri txikian daude eta besteak neurri handian.

Karta jokoa hartu eta, “On egin!” sailaren barruan, “Zortziko lapiko” multzoa hartuko dugu.

Azken puntua eta 3 oinak emango zaizkigu, **atzekoz aurrera bertsoak** osa ditzagun. Batzuk 8ko txikirako dira eta besteak 8ko handirako.